



ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Muntogorri.

Auzoa, udalerria: Amara., Donostia.

Dolarearen kokapena: Baserriaren iparraldeko eranskinean.

Jabea: Mendebaldeko bizitza: Antton Goikoetxea.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XIX-XX. mendekoa.

Iraunaldia: Duela 50 bat urte utzi zioten sagardoa egiteari tolare nagusian. Ondoren, behe solairuan dagoen beste txikiago batean egin zuten duela 40 bat urte arte.

Zenbait datu: Tolare nagusiak animalia trakzioz sagarra jotzeko sistema, malakatea, izan zuen, nahiz eta informatzaileak lanean ez ezagutu. Oraindik antzeman daitezke hainbat aztarna, harrizko horman egindako hainbat zulo esaterako. Ebberako egiteaz gain, Donostiara eramaten zuten sagardoa.

Eguno erabilera: Abandonatua, hondatua eta obretako zaborrez betea dago.

Kontserbazio egoera: Txarra.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

Dolare-prentsa:

Lehen solairuan dagoen tolare nagusiak ardatza eta burua falta du. Zurezko aska, kantalerak eta horiek estutzeko sistema besterik ez zaizkio geratzen, eta azpialdetik eusten duten soliba edo azpi sunbillak. Beheko tolarea, berriagoa, arrunta da, burdinazko ardazdun tolarea, hormigoizko askarekin.

Dolarearen osagarriak:

Argazkiak: 27.01, 27.02, 27.03, 27.04.

GAKO-HITZAK

Zurezko aska, malakatea, Donostia.

OHARRAK

GALDETEGIA

Informatzailea: Antton Goikoetxea.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabi

Datu bilketa data: 2010eko martxoaren 26a